

## LANKIDETZA KONTSEILUAREKIN PARTEKATU BEHARREKO INFORMAZIOAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzari azter dadin. Mozioa 2016ko urtarrilaren 16an Pertsonen Zerbitzuetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 8an alkateak prentsa-ohar batean adierazi zuen martxan jarritako radar mugikorrarekin, 2017an, 18.000 euro eskuratzea aurreikusten zuela, eta diru hori pertsona errefuxiatuekin lan egiten duen elkarte bati bideratuko zitzaioala.

Abenduaren 15eko bileran, Lankidetzaren Kontseiluko kideak haserre agertu ziren prentsa bidez ezagutu zutelako erabakia. Izan ere, eragileek ezin dute ulertu zertarako dagoen Lankidetzaren Kontseilua, aholkularitza eskaintzea helburu duena, gero ez badira horrelako erabakiak bertako kideekin partekatzen eta adosten.

Aldi berean, kontseiluan parte hartzen zuten eragileek erabaki horren nondik norakoez galdetu zuten (zein irizpideren baitan erabaki den diru ematea, laguntza sozial bat zigor bati lotzea egokia den edo ez, non eztabaidatu den eta abar). Lankidetzaren zinegotzi-ordezkariek erantzun zuen ez zuela erabaki horren berri izan alde aurretik, ez zuela alkatearen erabakia konpartitzen eta Alkatetzatik hartutako erabakia ez zela Lankidetzaren teknikariek kontrastatu.

Udal talde honek interpelazioa aurkeztu du urtarrileko batzordeetan, Euskadiko GGKEN Koordinakundeak kontseiluan adierazitako gogoeta konpartitzen dugulako. Koordinakundearen 40 urtez garapenerako lankidetzaren lanean ibili diren 79 eragile daude eta haien iritzia eta irizpide teknikoak haintzat hartu beharrezkoak iruditzen zaigu. Hori da, hain zuzen ere, lankidetzaren kontseilua bat izatearen helburua eta zentzua.

Koordinakundeko ordezkariak zioen bezala, lankidetzaren ezin da dena ontzat eman dirua lortzearen truke, eta beste pauso bat eman behar dugu: kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatu behar da Euskal Herriko erakunde publiko zein pribatuaren artean, eta gure ingurunean eraldaketa soziala bultzatu; herritarren artean elkartzaren kultura sustatu, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.

Baina batzordeetan ordezkariak emandako azalpenak ikusita, argi dago Udal Gobernuak ez dituela entzun, gutxiago ere aztertu, koordinakundeak esandako hitzak. Zinegotzi ordezkariak esandakoaren arabera garrantzitsuena dirua lankidetzara bideratzea da, nondik datorren edo nola kontuan izan gabe. Gauzak horrela, ezin dugu ulertu zer dela eta ez duen

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

udal aurrekontuko diru gehiago bideratu lankidetzara eta, are gehiago, zergatik jaitsi duen Lankidetzara bideratutako aurrekontua % 0,39tik % 0,36ra.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari errespetuz tratatu ditzala Garapenerako Lankidetzara Kontseiluko kideak eta lankidetzarekin lotutako gaien inguruan dituzten iritziak entzun ditzala.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari lankidetzara bideratzen dituen baliabide ekonomikoak kontseilu kideekin eztabaida ditzala erabaki tinkoak hartu baino lehen.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**